



# Nondik eta zeri ari gatzaizkio bertsoan?



**Uzt. 04 - Uzt. 05 2024**

**Kod. I02-24**

**Mod.:**

Aurrez aurrekoa

**Edizioa**

2024

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Uzt. 04 - Uzt. 05 2024

**Kokalekua**

Miramar Jauregia

**Hizkuntzak**

Euskara

**Balio akademikoa**

20 ordu

**Antolakuntza Batzordea**

Fundación  
BBVA



## Azalpena

Uda Ikastaroan bat-bateko bertsogintza garaikideko hainbat kezka plazaratu nahi dira: gai bati kantatzeko zilegitasuna; bertsolaritzan diren ideologiak eta diskurtsoak; gai sozio-politikoaren lekua; etika eta adierazpen askatasuna bat-bateko bertsogintzan eta abar.

Horrezaz gain, libreko bertsogintza aparteko genero bezala aztertuko da. Egungo bat-bateko bertso saioen egitura zurrunaz ere ariko gara, gai-jartzailearen talaiatik. Eta azkenik, bertsolaritzan gertatzen diren botere harremanak eta horiek bertsoaren balioespenean duten eraginaz ariko gara.

Hizlariak, aipatutako gaiez gogoetak prestatzeaz gain, mahai-inguruetan ariko dira azalpenak xehetzen eta iritzi trukean.

[Hizlarien laburpen laburra](#)

## Helburuak

Egungo bat-bateko bertsogintzan diren sorkuntza mailako kezkei buruz hausnartzea eta gogoetak partekatzea.

## Lankidetz



# Programa

## 2024-07-04

08:45 - 09:00	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena  Ikastaroaren aurkezpena <b>Karlos Aizpurua Etxarte</b>   Bertsozale Elkartea - Ikerkuntza eragilea
09:00 - 09:45	“Diskurtso guztiek izan behar al dute tokia plazan?” <b>Saioa Alkaiza Guallar</b>   Nafarroako Bertsozale Elkartea - Bertsolaria eta bertsolaritza irakaslea
09:45 - 10:30	“Gai bati buruz kantatzeko zilegitasuna” <b>Maidar Arregi Markuleta</b>   Bertsolaria eta DBHko irakaslea
10:30 - 11:00	“Botere harremanak. Bertsolariaren itzalaren eta generoaren eragina bertsoaren balioespenean” <b>Onintza Enbeita Maguregi</b>   Bertsozale Elkartea - Bertsolaria eta kazetaria
11:00 - 11:30	Atsedena
11:30 - 12:15	“Bertsolaritza ideologikoki lerraturik dago?” <b>Oihana Arana Cardenal</b>   Bertsolaria eta idazlea
12:15 - 13:30	Mahai ingurua: “Egungo bertsogintzako diskurtsoak, zilegitasuna eta itzalak” <b>Karlos Aizpurua Etxarte</b>   Bertsozale Elkartea - Ikerkuntza eragilea (Moderatzailea) <b>Saioa Alkaiza Guallar</b>   Nafarroako Bertsozale Elkartea - Bertsolaria eta bertsolaritza irakaslea <b>Maidar Arregi Markuleta</b>   Bertsolaria eta DBHko irakaslea <b>Oihana Arana Cardenal</b>   Bertsolaria eta idazlea <b>Onintza Enbeita Maguregi</b>   Bertsozale Elkartea - Bertsolaria eta kazetaria

## 2024-07-05

09:00 - 09:50	“Libreko bertsogintza. Kokapena, aukerak eta mugak.” <b>Jesus Mari Irazu Muñoz</b>   Bertsolaria eta kazetaria
09:50 - 10:40	“Gai-jartzaile autorea.” <b>Alaia Martin</b>   Bertsolaria eta kazetaria <b>Imanol Artola Arretxe</b>   Gai-jartzailea eta kazetaria
10:40 - 11:15	“Egoera sozio-ekonomikoari kantatzen al zaio? I” <b>Aitor Bizkarra Ruiz</b>   Bertsolaria eta irakaslea
11:15 - 11:45	Atsedena

11:45 - 12:20	“Egoera sozio-ekonomikoari kantatzen al zaio? II” <b>Oihana Iguaran Barandiaran</b>   Bertsolaria eta bertsolaritzan doktoregaia
12:20 - 12:55	“Formatik haragoko lanketa bertso eskoletan; gaien eta ideologiaren lanketa I” <b>Oihane Perea Perez de Mendiola</b>   Bertsolaria eta bertsolaritza irakaslea
12:55 - 13:30	“Formatik haragoko lanketa bertso eskoletan; gaien eta ideologiaren lanketa II” <b>Beñat Gaztelumendi Arandia</b>   Bertsolaria

## Zuzendaritza



### **Karlos Aizpurua Etxarte**

Bertsozale Elkarte, Ikerkuntza eragilea

---

Karlos Aizpurua Etxarte (Oiartzun, 1.971). Euskal Filologia (Deustuko Unibertsitatea) eta Enpresa Ikasketak (UPV/EHU) gauzatu zituen. Mondragon Unibertsitateko Euskal Kulturgintzaren Transmisioa eta UNEDeko Idazle Eskola gradu-ondokoak egindakoa. Bertsolaritzaren hainbat esparrutan aritu da gazetarik: bertsolari, gai-jartzaile, Hitzetik Hortzera EITBko bertso saioan erredaktore, Bertsolari Txapelketa Nagusiko antolatzaile, bertsogintzako iruzkingile hedabideetan... Dena den, bertsolaritzan irakasle bezala jardun du batez ere: lehenik Oarsoaldean (1989-1998) eta ondotik (1998-2010) Ipar Euskal Herri osoan gandi. Hezkuntza Arautuan egin lanari esker, Iparraldean hamaika bertso eskola berri sortu ziren, halakorik inoiz izan gabeko herritan ere bai. Bertso eskoletan irakasle aritzeaz gain, aisialdiko bertsolaritza proiektuak antolatu eta gauzatu zituen: Bertso Udalekuak, "Bertsulariak ikastolarat" bertso saio zirkuitua, Bertsolari gazteen Eskolarteko Txapelketa, ... 2010az geroztik, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Ikerkuntza eragilea da.

## Irakasleak



### **Saioa Alkaiza Guallar**

---

Kazetaritza, antropologia eta genero berdintasun ikasketak ditu. Antsoaingo, Lekunberriko eta Iruñerriko Bertso Eskoletan aritua, Nafarroako Eskolarteko txapelduna izan zen, 2008an eta 2009an, eta Izeta saria eskuratu zuen, 2014an. 2021eko Nafarroako Bertsolari Txapelketan txapela jantzi zuen. 2022an Euskal Herriko Bertsolari Txapelketan aritu zen estreinakoz.



### **Oihana Arana Cardenal**

---

Bertsolaria eta idazlea. BERRIA egunkarian idazten du. Gizarte antropologiako ikasketak eginak ditu. Eskolarteko bertsolari txapelketan hainbat sari irabazi ditu. 2020an argitaratu zuen bere lehenengo eleberria, Portuak. izenekoa. Lazunak azkazaletan izeneko poesia liburua idatzi zuen gero. 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko bertsogintza batzordeko talaiatik jarraipen zorrotza egin zion txapelketari.



### **Mainer Arregi Markuleta**

---

Bertsolaria eta DBHko irakaslea da. Bertsolaritza ikertu du. Filosofia ikasketak eginak ditu.



## **Imanol Artola Arretxe**

Galtzaundi

---

Filosofian lizentziatua, soziopolitikan eta soziolinguistikan aditua; eta Galtzaundi Tolosaldeko euskara mugimenduko liberatua. Etxetik eta eskolatik datorkio hizkuntzarekin eta hoskidetasunarekin jolasteko zaletasuna, eta txikitatik landu izan ditu ahozkoatasunarekin lotuta hainbat diziplina: bertsoa, antzerkia, errezeitatzea, kontalaritza... 2012an sortu zenetik (H)aritzuz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkarguneko kidea da; 2015eko Gipuzkoa Bertsoaneren hasi zen gai-jartzaile; eta, harrezkero, Gipuzkoako Txapelketan, Tolosaldeko sariketetan eta zonaldeko bertso-saioetan ibili izan da gai jartzen. Bertso-saioez gain kultura-jardunaldiak, hitzaldiak, kirol-ekitaldiak, omenaldiak eta antzerakoak ere aurkeztu izan ditu. 2016tik (H)ari Naizela bertso-irratsaioa egiten du astero, Tolosaldeko Ataria Irratian, BZErekin eta (H)aritzuzekin lankidetzan. 2022ko Txapelketa Nagusian gai-jartzaile taldean aritu zen.



## **Aitor Bizkarra Ruiz**

---

Filosofia ikasketak eginak ditu. Bertsoan Zelaietako Herri Eskolan eta Abadiñoko Gogaikarri bertso-eskolan hasi zen, 10 urte inguru zituela. Bere lehen txapelketa Eskolartekoa izan zen, 12-13 urterekin. Bizkaiko Bertsolari Txapelketan birritan finalista eta 2022ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketan finalaurrekoetara iritsi zen.




## **Onintza Enbeita Maguregi**

---

Umetatik bertso giroan hezia, 2006an iritsi zen lehenengoz Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalera. Eskualdeko txapela irabazi zuen urte hartan eta harrezkero izan diren final guztietara sailkatu da Bizkaian. 2018an Bizkaiko Txapeldun izan zen. 2005, 2009, 2013 eta 2017ko Euskal Herriko txapelketan parte hartu zuen. 2024tik, gainera, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko lehendakaritza taldeko kidea da.



Leioan Ikusentzunezko Komunikazioa ikasi ondoren kazetari lanetan aritu zen. Beti izan da bertsozalea, eta Igeldoko, Hernaniko eta Santutxuko bertso eskoletan ibilia da. Eskolartekoetan eta gazte sariketetan sari asko irabazia da. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko lehendakaritza taldeko kidea izan da 2018tik 2024ra arte. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalista izan da 2013an, 2017an eta 2022an. Gipuzkoako txapelduna izan zen 2015ean eta 2019an, eta txapeldunorde aurreko bietan, 2007an eta 2011n.



### Oihana Iguaran Barandiaran

NOR ikerketa taldea

---

Ikus-entzunezko Komunikazio ikasketak egin zituen Leioan eta kazetari gisa jardun zuen lanean. Gizarte Komunikazio Masterra egin zuen EHUUn. Haur zela gerturatu zitzaion bertsolaritzari eta azken urteotan bertsozale ez ezik bertsolari bezala dabil askotan. Etengabe marraztu ditu ofizioaren eta afizioaren arteko loturak, eta beharbada horregatik ari da doktoretzako ikerketan. Egiten ari den doktore tesiaren baitan, bertsoaren agenda edo gaitegia zein den deskribatu nahi du, hedabideek bertsolaritzan duten eraginetik abiatuta.



### Jesus Mari Irazu Muñoa

---

Filosofian Lizentziatua, Gizarte Antropologia alorrean. 30 urtetik gora daramatza bertsoaren plazan, eta 1.500 betso saiotik gora eginga da Euskal Herri osoan barrena. Bereziki, norbere posizio ideologiko eta bizitza ereduarekin sintzeroa den bertsogintza du estimutan. Fintasunaren miresle da eta bertso-elkarrizketaren defendatzaile. Euskal Herriko txapelketa bitan izan da finalista eta 1997an laugarren gelditu zen, Egaña, Lizaso eta Iturriagaren ondoren. Gipuzkoan ia 20 urtez da finalista (1995tik) eta txapeldunorde bitan, 1995ean zein 1999an. Bat-batean ez ezik, Bertso-jarrien eremua ere landu du. Bertsoa.com plaza digitalaren sortu zuen 2006an, bertsolaritza sarean bere osotasunean eta gaurkotasunean zabaltzeko lehenengo komunikazio proiektua (2013an Argia Saria jaso). Gaur egunean profesionalki, Bertsoa.eus-en ez ezik, teknologia berrien eta ikus-entzunezkoen alorrean dihardu. Bertsolari ez ezik, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko bazkide da eta zuzendaritza zein sustapen ardurak izan ditu hainbat urteetan.





## **Alaia Martin**

---

Ikusentzunezko Komunikazioan lizentziatua da, zinemagintzan espezializatua. Gidoigintzan ibili da telesail eta dokumentaletan eta baita Euskadi Irratiko Zubiak, Barrubiak eta Herritxia saioetan ere. 12 urterekin hasi zen bertsoan, eta Oiartzungo eta Santutxuko bertso eskoletan ibilitakoa da, baita Ahalduntze bertso eskolan. Gipuzkoako txapelketaren finalean hirugarren izan zen 2011an eta 2019an, eta txapeldunorde 2015ean. 2013ko eta 2017ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketan finalurrekoetan jardun zen eta 2022an finalera iritsi zen. Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko Transmisio atalean irakasle ibilia da eta Leihoen afasia antzerki-kronika liburuaren egilea, eta Zazpika Aldizkarian zein irratian iritzi emaile ibilitakoa.



## **Oihane Perea Perez de Mendiola**

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

---

Arabako Bertsozale Elkarteko eragilea da eta bertso-eskolako eta ikastetxeetako bertsolaritza irakasle ere bai. 2007ko, 2009ko, 2013ko eta 2017ko Arabako Bertsolari Txapelketak irabazi zituen eta 2012an Arabako Kuadrilla Arteko Txapelketan ere lehena izan zen Lautadako taldea.

# Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2024-05-31 ARTE	2024-07-04 ARTE
<a href="#">Gazte tarifa</a>	25,00 EUR	50,00 EUR
<a href="#">UIK euskaraz</a>	-	71,00 EUR
<a href="#">Matrikula murriztua orokorra</a>	-	61,00 EUR
<a href="#">Matrikula exentzia</a>	-	50,00 EUR
<a href="#">Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide</a>	-	61,00 EUR
<a href="#">Elkar</a>	-	61,00 EUR
<a href="#">Ikastaroak guztiontzat</a>	-	61,00 EUR
<a href="#">Donostia Kultura</a>	-	61,00 EUR

# **Kokalekua**

## **Miramar Jauregia**

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa